

Nisa Goiburuk arte eta poesia uztartzen dituen erakusketa berri batekin ospatuko du bere mende erdiko ibilbide artistikoa

Inaugurazio-ekitaldia urriaren 3an, ostirala, izango da, 18:00etan, Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxean (sarrera libre). Artistaren zuzeneko performancea izango da.

Donostia 2025eko irailaren 30a.- Datorren ostiralean, urriaren 3an, 18:00etan, Nisa Goiburu artista ordiziarraren **Latires** erakusketaren inaugurazio-ekitaldia egingo da Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxean, Cristina Enea parkearen goiko aldean. Ekitaldia doakoa eta publikoari irekia izango da, eta zuzeneko performance artistiko bat izango du, poesia eta musikaz lagunduta, baita egilearen obra baten zozketa bat ere bertaratutako pertsonen artean.

Erakusketa abenduaren 8ra arte egongo da ikusgai, eta pintura, eskultura eta poesia narratiboa uztartzen dituzten berrogeita hamar lan inguru biltzen ditu. Proposamen berezia da, eta pertsonen eta naturaren arteko loturari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu, *"presazko eta desconexiozko garai hauetan"*.

Berrogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbideak Nisa Goibururen lanmaren kalitatea bermatzen du. Nisa Goiburuk 70eko hamarkadan ekin zion pinturari, Cristina Enea parkean, hain zuzen ere. *"Erakusketa honek ilusio berezia egiten dit, alde batetik, artearen munduan berrogeita hamar urte baino gehiago direlako hainbat diziplinatan, hala nola pinturan, eskulturan eta poesia narratiboan, erakusketa honetan ikusten den bezala, eta, bestetik, gaztetan margotzen hasi nintzen lekura itzultzen naizelako, parkea jendearentzat itxita zegoenean eta bertan sartzen nintzenean bertako paisaiak, zuhaitzak eta natura marraztu ahal izateko"*, gogoratzen du artistak.

Latires erakusketak Goibururen beraren eta erakusketa honetan espresuki parte hartu duen Joaquín Araujo naturalista eta idazlearen testu poetikoak biltzen ditu. *"Koadro bakoitza biziari, zeharkatzen gaituzten pultsuei egindako deia da: giza taupada, haizearen xuxurla, itsasoko olatuak, landareen ernamuina edo urtaroen betiereko zikloa"*, azaltzen du egileak.

Erakusketa begirada introspektibo batetik sortu da, etenaldi eta hausnarketarako borondatearekin. *"Presa eta desconexio garaioan, Latires erakusketak lurrarekin eta haren erritmoekin konektatzeko espazio bat irekitzen digu"*, adierazi du Eneko Calvo Etxarte Cristina Enea Fundazioko erakusketa-teknikariak.

Iñigo García Ingurumen zinegotziak goraipatu du *"Nisa Goiburuk ingurune naturalarekin duen sentsibiltatea eta konpromisoa, bere obra guztietan islatzen dena. Erakusketa honek, ibilbide artistiko miresgarria ospatzeaz gain, inguratzen gaituen paisaiari beste begi batzuekin begiratzea gonbidatzen gaitu, artea, hitza eta emozioa oinarri hartuta"*.

Hainbat jarduera paralelo

Erakusketarekin batera, hainbat jarduera paralelo egingo dira erakusketaren aldia zehar, eta mota askotakoak izango dira:

• **Nisa Goibururen "Latires erakusketaren sekretuak" bisita gidatu interaktiboa. (urriaren 18an -gaztelaniaz- eta azaroaren 15ean -euskaraz-. 17:30ean. Ingurumen Baliabideen Etxea).**

Sormen-prozesua eta artistaren lanaren oinarri diren ideiak sakonki eta bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea. Ibilbidean zehar, Goiburuk ikusgai dauden piezak banakatuko ditu, haien inspirazioari, ekoizpena bultzatu duten emozioei eta erakusketaren zein lan bakoitzaren ikuspegi narratiboari buruzko xehetasunak emanaz.

Goiburrekin batera, artearen arloan garrantzi handia duen pertsona bat etorriko da, bisita bere esperientziarekin eta ezagutzarekin aberastuko duena. Gainera, laguntzaile horrek ikuspegi osagarria emango du, bertaratutakoen, artistaren, obraren eta erakusketari bizia ematen dioten ideien arteko elkarriketa aberasgarriaren bidez. Zalantzarik gabe, artistaren arimara zein **Latires** erakusketaren sekreturik intimoenetara hurbilduko gaituen esperientzia.

• **Familiantzako hezkuntza-tailerra (azaroaren 8an). 11:00-13: 00, Ingurumen Baliabideen Etxea).**

Familiantzako sormen-jarduera bat, erakusketaren bisita gidatu labur batekin hasi eta aire zabaleko tailer batekin osatzen dena. Elementu naturalak erabiliz, hala nola hostoak, adarrak eta pigmentuak, erakusketaren eduki poetikoekin bat datorren esperientzia artistiko eta sentsoriala eskainiko da.

• **Arte digitaleko esku-hartzea CEINPROrekin**

Ceinpro ikastetxeko ikasleek erakusketa bisitatuko dute eta, ondoren, banaka edo taldeka esku-hartze digital bat egingo dute obretako baten inguruan. Lan hori Goiburu artistak eta irakasleek ebaluatuko dute ondoren. Balio hezitzaile, sortzaile eta pedagogiko handiko jarduera.

• **Arteari eta zientziari buruzko topaketa interaktiboa (azaroaren 20an, Ingurumen Baliabideen Etxeko kapera).**

Proposamen berezi eta berritzailea, non Nisa Goiburu artistak Ricardo Díez Muiño Donostia International Physics Centerreko zuzendariarekin hitz egingo duen zientziaren eta artearen arteko harremanari buruzko formatu gogoetatsu, atsegin eta kritikoan. Sentsibilitatea, ezagutza, humanismoa, konpromiso ekologikoa eta sormen artistikoa uztartuko dituen elkarriketa, zientziarekiko eta artearekiko pasioak elkartutako belaunaldi, sexu eta lanbide ezberdinetako bi pertsonen ikuspegitik.

Nisa Goiburu celebra su más de medio siglo de trayectoria artística con una novedosa exposición donde aúna arte y poesía

El acto inaugural tendrá lugar el viernes 3 de octubre a las 18:00 h en el Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián, con entrada libre y una performance en directo de la artista.

Donostia / San Sebastián, 30 de septiembre de 2025.- El próximo viernes 3 de octubre, a las 18:00 h, se celebrará el acto inaugural de la exposición **Latires**, de la artista ordiziarra Nisa Goiburu, en el Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián, ubicado en la zona superior del parque Cristina Enea. El evento será gratuito y abierto al público, e incluirá una performance artística en directo, acompañada de poesía y música, así como una rifa de una obra de la autora entre las personas asistentes.

La muestra podrá visitarse hasta el 8 de diciembre y reúne cerca de medio centenar de obras que combinan pintura, escultura y poesía narrativa. Se trata de una propuesta singular que invita a reflexionar sobre el vínculo entre las personas y la naturaleza, en *"estos tiempos de prisa y desconexión"*.

Más de cincuenta años de trayectoria avalan a Nisa Goiburu, que inició su andadura pictórica en los años setenta precisamente en el parque Cristina Enea. *"Esta exposición me hace especial ilusión, por un lado, porque son más de cincuenta años en el mundo del arte en diversas disciplinas como la pintura, la escultura y la poesía narrativa, tal y como se aprecia en esta muestra, y por otro lado, porque vuelvo al sitio donde comencé a pintar de joven, cuando el parque estaba cerrado al público y me colaba en el mismo para poder dibujar sus paisajes, sus árboles y su naturaleza"*, recuerda la artista.

Latires incluye textos poéticos tanto de la propia Goiburu como del naturalista y escritor Joaquín Araujo, que ha colaborado expresamente en esta exposición. *"Cada cuadro es una llamada a lo vivo, a los pulsos que nos atraviesan: el latido humano, el susurro del viento, el oleaje del mar, el brotar de las plantas o el eterno ciclo de las estaciones"*, explica la autora.

La exposición ha sido concebida desde una mirada introspectiva, con voluntad de pausa y reflexión. *"En tiempos de prisa y desconexión, **Latires** nos abre un espacio para reconectar con la tierra y sus ritmos"*, señala Eneko Calvo Etxarte, técnico expositivo de Fundación Cristina Enea.

El concejal de Medio Ambiente, Iñigo García, ha subrayado *"la sensibilidad y el compromiso de Nisa Goiburu con el entorno natural, que se refleja en cada una de sus obras. Esta exposición no solo celebra una trayectoria artística admirable, sino que también nos invita a mirar con otros ojos el paisaje que nos rodea, desde el arte, la palabra y la emoción"*.

Diferentes actividades paralelas

La exposición va acompañada de varias actividades paralelas que se realizarán a lo largo del periodo de la muestra y serán de muy diversa índole:

• **Visitas guiada interactiva de Nisa Goiburu 'Los secretos de Latires'.** (18 de octubre -castellano- y 15 de noviembre -en euskera-. 17:30. Centro de Recursos Medio Ambientales).

Una oportunidad única para conocer en profundidad y de primera mano el proceso creativo y las ideas que fundamentan la obra de la artista. A lo largo del recorrido, Goiburu desglosará las piezas expuestas, brindando detalles sobre su inspiración, las emociones que han impulsado su producción y el enfoque narrativo tanto de la muestra como de cada trabajo.

Goiburu será acompañada por una figura de relevancia en el ámbito artístico, que enriquecerá la visita con su experiencia y conocimiento. Además, dicho acompañante aportará una visión complementaria mediante un diálogo enriquecedor entre las y los asistentes así como la artista, la obra y las ideas que dan vida a la exposición. Sin duda, una experiencia que nos acercará tanto al alma de la artista como a los secretos más íntimos de **Latires**.

• **Taller educativo para familias** (8 de noviembre. 11:00-13:00, Centro de Recursos Medio Ambientales).

Una actividad creativa para familias que comienza con una breve visita guiada a la exposición y se complementa con un taller al aire libre. Utilizando elementos naturales como hojas, ramas y pigmentos, se ofrecerá una experiencia artística y sensorial acorde con los contenidos poéticos de la exposición.

• **Intervención de arte digital con CEINPRO**

El alumnado del centro de estudios Ceinpro visitará la exposición y tras ella, realizarán individualmente o en grupos una intervención digital en torno a alguna de las obras. Dicho trabajo será posteriormente evaluado tanto por la artista Goiburu como por el profesorado. Una actividad de alto valor educativo, creativo y pedagógico.

• **Encuentro interactivo de arte y ciencia** (20 de noviembre, Capilla del Centro de Recursos Medio Ambientales).

Una propuesta singular y novedosa donde la artista Nisa Goiburu conversará con el director del Donostia International Physics Center Ricardo Díez Muiño en un formato reflexivo, ameno y crítico acerca de la relación entre ciencia y arte. Un diálogo que entrelazará sensibilidad, conocimiento, humanismo, compromiso ecológico y creatividad artística bajo el prisma de dos personas de diferentes generaciones, sexos y profesiones unidas por su pasión por la ciencia y el arte.